



**Fantasiatzko eta Beldurrezko
Zinemaren Astea**
**Semana de Cine
Fantástico y de Terror**
**Horror and Fantasy
Film Festival**



GIPUZKOAKO ARGAZKILARI ELKARTEA
SOCIEDAD FOTOGRAFICA DE GIPUZKOA

“30ARGAZKI30” deialdia

Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Astea ospatzeko erakusketa

OINARRIAK

Donostiako Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Asteak eta Gipuzkoako Argazkilari Elkarteak dei egiten diete argazkilari profesionaleri eta afizionatuari **30Argazki30** erakusketa osatzeko.

Argazkiak koloretan edo zuri-beltzean aurkez daitezke, eta Donostiako Fantasiatzko eta Beldurrezko Astearen edozein 29 edizioetan eginak izan behar dute, Asteak egiten dituen jardueretatik edozeinetan.

Deialdi honetako parte hartzaileek gutxienez 18 urte izan behar dituzte.

TAMAINA ETA EZAUGARRIAK

Gehienez 5 argazki aurkez ditzake parte hartzaile bakoitzak.

Argazki bakoitzeko honako datu hauek gehitu behar dira: titulua, lekua eta data. Horrez gain, dokumentazio hau erantsi behar da: izena, abizenak, posta helbidea, telefono zenbakia, posta elektronikoa eta NAN zenbakia.

Irudiak posta elektronikoz bidali behar dira JPEG formatuan, 3Mb-ko gutxienezko tamainarekin, posta elektronikoa helbide honetara, **30fotos30@gmail.com**, gai hau adierazita, “EXPOSICIÓN 30SemanaTerror”

ENTREGA DATA

Argazkiak 2019ko irailaren 16ra arte onartuko dira, 14:00ak arte.

EPAIMAHAIA

Gipuzkoako Argazkilari Elkarteak eta Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Astea arduratuko dira argazkien hautaketarako epaimahaia osatzeaz.

HAUTAKETA

Argazkiak hautatzerakoan irizpide hauek kontuan hartuko dira: kalitatea, ikuspegiaren aniztasuna, originaltasuna... Hautatutako argazki guztiak jarriko dira ikusgai Gipuzkoako Argazkilari Elkartearen egoitzan izango den erakusketan, Fantasiatzko eta Beldurrezko 30.



**Fantasiatzko eta Beldurrezko
Zinemaren Astea**
**Semana de Cine
Fantástico y de Terror**
**Horror and Fantasy
Film Festival**



GIPUZKOAKO ARGAZKILARI ELKARTEA
SOCIEDAD FOTOGRAFICA DE GIPUZKOA

Astearekin bat etorritz. Erakusketa 2019ko urriaren 24tik azaroaren 8ra arte egongo da publikoarentzat zabalik.

Hautaketaren emaitza Asteak eta GAEk emango dute ezagutzera, eta zuzenean jakinaraziko zaie hautatuak izan diren guztiei.

Antolatzaileek hartuko dituzte berengain argazkiak handitzeko eta markoztatzeko kostuak. Hautatuek doan jasoko dute beren argazkien kopia handitua (markorik gabe) erakusketa jendaurrean ireki ondoren.

Parte hartzaileek bermatu egiten dute aurkeztutako obraren egile direla, eta bere lanketan ez dela hirugarrenen jabetza intelektualari eta industrialari lotutako arau-hausterik egin.

Aurrekoagatik, bai GAE bai Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Astea salbuetsita geratzen dira hirugarrenei egin ahal izan zaizkien kalteen erantzukizun orotatik, eta parte hartzaileak eta ez beste inork hartu behar du erantzukizun hori beregain. Gainera, garrantzizkoa da gogoan izatea prozesuan sartzen diren argazki guztiek erabiltzailearen jabetzakoak izaten jarraitzen dutela. Hala ere, parte hartzaileek GAERI eta Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Asteari lagatzen dizkiete, inolako ordainik gabe, erreproduzitzeko, banatzeko, jakinarazpen publikorako eta eraldaketarako eskubideak, mundu mailako lurralde-eremuan eta 1/1996 errege lege-dekretuak baimendutako aldi osoan, GAEk eta Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Asteak obra erabili eta sustatzeko ondorioetarako.

Deialdi honetan parte hartzean, parte hartzaileek automatikoki ematen dute baimena, mundu osoan, GAERen eta Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Astearen aldetik mugarik gabe, beren irudia eta izena erabili, argitaratu eta erreproduzitzeko, edozein publizitate, sustapen eta argitalpenetan, Internet barne, edo beste edozein motatako baliabidetan, betiere informazio edo azalpen xedeetarako, parte hartzaileari inolako ordainketarik egin gabe.